

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

Euskal musika tradizionalaren etengabeko berrikuntza

Euskal musika tradizionala bizirik, onik eta indarrean dago. *Hiru Truku, Tapia eta Leturia Band, Alboka eta Oskorriten* azken diskoak dastatzeko aukera izan dutenek harritzeko motibat baina gehiago izan dute. Musika tresna berriak eta doinuak tajutzeko molde berriak ari dira sartzen bor-bor etengabe bizi den euskal musika tradizionalan.

Berrikuntzaren hastapenak, hala ere, hirurogeigarren hamarkadan, diktadurapean, sortu zen *Ez Dok Amairu* taldean bilatu behar dira. Honek, garaiko molde zaharkitu eta estuei euskal kantutegi zaharraren gaurkotasuna eta freskotasun harrigarria kontrajarri zizkien. Geroztik, euskal musika tradizionalak bide ugari urratu ditu, hainbat abeslari edo talderen eskutik: Benito Lertxundik adar zelta tradizionalari eutsi zion; Haizea taldeak gerora segidarik izan ez duen irtenbidea eskaini zien doinu zaharrei; *Oskorrik*, hamabost diskotan zehar, musika teknikoki oso landua eskaini digu, gaita, alboka eta bestelako musika tresnak naturaltasun eta maisutasun handiz erabiliz, eta mezua eta doinuak modu paregabean uztartuz.

Ia denetan, nabarmen dira kanpotik iritsitako musikaren oihartzunak. Salbuespen bakarra Mikel Laboa izan liteke, honek bereari eutsi baitio behin eta berriro, estilo erabat pertsonala sortuz.



Alboka. Musika instrumentalaren bidetik abiatu da Alboka bere lehen diskoan, oinarrian kantutegi tradizionalako abestiak eta doinuak dituela.

Azken urteari dagokionez, euskal musika tradizionalaren eremuak gehiago zabaldu dira. Alboka taldeak dantzarako egokia izan litekeen musika instrumentalaren bideari ekin dio.

Oskorrik beste urrats bat eman du bere bidean Landalan diskoarekin. Berriro ere, esperimentatzeari ekin dio Natxo de Feliperen taldeak, emaitza ona lortuz.

Hiru Trukuk euskal musikaren tradizioa ez dagoela Zuberoan soilik gogorarazi digu, euskal musikak aspaldi atera duen diskorik borobilenetako batean. Joseba Tapiak, Ruper Ordorikak eta Bixente Martínezek -bakarka edo taldean arituak, hirurek ere ederto asko ezagutzen dute euskal kantu tradizionala-

agerian jarri dute Bizkaia izkutan zuen altxorra.

Beste eremuetan berrikuntzak izan litezkeenak, trikitixaren esparruan iraultza bilakatu da, batez ere Tapia eta Leturia eta Kepa Junkerari esker. Hauek bide berrietan barrena sartu dute trikitixa, musika mota desberdinekin nahastuz. Harrigarria bada ere, halakoa da musiko eta publiko gaztearen artean lortu duten ospea, trikitixa egiteko molde zaharra galtzeko zorian da.

Modu batean zein bestean, musikazaleak badu zertaz gozatu euskal musikan, inoiz ez bezalako emaitza onak ari baitira kaleratzen.



Hiru Truku. Zuberoatik kanpo ere euskal musika tradizionalik badela gogorarazi digu Hiru Trukuk, azken urteotan argitaratu den diskorik borobilenetako batean.

Arantxa Iturbe eta Jaime Otamendi, esan eta izan

Jaime Otamendi, 28, elduaiendarrak eta Arantxa Iturbe, 31, alegiarrak euskal irrattigintzan gehien entzuten den irratsaioa aurkezten dute: Euskadi Irratiaren goizak betetzen dituen *Goizean Behin*.

Oso gazte hasi ziren *Goizean Behin* egiten. Zazpi urteren ostean, gaur egun ere irratsaioa egiten duen taldearen batez besteko adina 29 urtekoa da. Gogor egin behar izan dute lan, ordea. "Batik bat taldelana egiten ikasi dugu", diote.

Jaime Otamendiri gaztetatik datorkio irrattizaletasuna. 17 urte zituela Euskadi Irratian ordezkapenak egiten eta Leioako campusean kazetaritza ikasten hasi aurretik, Elduaiengo irrati pirata batean eman zituen lehen urratsak. Telebistan ere badu eskarmenturik: *Don Von Kikilikon*, *Funtzioa eta Berehala Gatoz* saioetan esku hartu. zuten erredaktore gisa edo aurkezle lanetan.

Arantxa Iturbek Iruñeko Deian eta Herri Irratian egin zuen lan, Nafarroako Unibertsitatean



kazetaritza ikasketak egiten zituen bitartean. Vasco Press albiste agentzian ere ibilia da. 1984ko udan ezagutu zuten elkar Euskadi Irratian, praktikak egiten hasi zirenean. Hiruzpalau urtez Patrikazulo eta Gave Gara Gazte irratsaioak egin zituzten elkarrekin.

Irrati profesionalak izanda ere, badute beste ardurarik. Arantxak idaztea du gogoko. Irratirako *Maite, maite, maitea* 75 kapituluko

irrati nobela idatzi zuen. Oraintsu kaleratu berri du, gainera, bere bigarren ipuin liburua: *Lehenago Zen Berandu*. Jaime Tolosako Galtzaundi Forumeko kidea da. Euskadi Irratiko programaburu denez gero, datorren irrati sasoiko programazioa tajutzeak ematen dizkio buruhaustek.

Datorren sasoiaren elkarrekin segituko dute eguneroko *Goizean Behin* saioan.

Euskal Konfederakuntza Iparraldean.

Ipar Euskal Herriko 30 elkartek Euskal Konfederakuntza sortu zuten ekainaren 17an. Helbururik nagusia estatu frantsesean euskararen ofizialtasuna lortzea izango da. Horretarako, 1994an Iparraldeko hainbat kultur elkartek onartutako Euskararen Agiria hartuko dute oinarritzat. Jean Louis Laka da lehendakaria.

“Goenkale” saioaren arrakasta.

ETBiek eman duen Goenkale saioaren arrakastaren oinarrian aktoreak, darabilen euskara eta gaien gaurkotasuna daude, EHUko Soziologia fakultateko bosgarren kurtsoko zenbait ikasleak, César Martínez irakasleak zuzenduta, 700 euskaldunen artean egin duten inkestaren arabera. Inkestatuen %66 Goenkaleren jarraipenaren alde agertu dira.

Euskararen gaineko erabakiak eta estatua.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak erabaki duenez, Espainiako estatuak ez du zilegitasunik euskararen gaineko erabakiak aurkatzeko. Oiarzungo Udalak udal liburuzaina hartzeko deialdian euskarazko azterketa bete beharrekoa eta kanporagarria izatea erabaki ondoren, estatuko abokatuak ezarritako errekursoari erantzutera etorri da epai hau.

Botika irekitzeko euskara baloratuko da.

Eusko Jaurlaritzak euskaraz jakitea baloratuko die Euskal Autonomi Elkartearen botika irekitzeko deialdietara aurkezten direnei. Gehienik jota 0,5 puntu eman dakioko euskara jakiteari, hau da, urte erdiko esperientzia profesionalaren beste. Urte honen hasieran antzeko dekretua onartu zen jabez aldatu behar ziren botikentzat.

Udal liburutegietako katalogazioa euskaraz

Euskal Autonomi Elkartearen dauden 280 udal liburutegietan aukera izango dute laster liburuak, aldizkariak, diskoak, komikiak eta gainerako materiala euskaraz ere katalogatzeko. Ondorioz, erabiltzaile euskaldunak ere euskaraz egin ahal izango ditu kontsulta guztiak, katalogazioa euskaraz dagoen liburutegietan.

Gaur egun, hala ere, Gipuzkoako zenbait herritan izan ezik, erabiltzaile gutxiak dute kontsultak euskaraz egiteko parada. Izan ere, liburutegietako materiala sailkatzeko gehien erabiltzen diren hiru tresnak gaztelaniaz eginak baitira:

1. *Katalogazio Arauak*. ISBD-ren gaztelaniazko egokitzapena. Madrilgo gobernuko Kultura Ministerioak argitaratua da.

2. *Liburutegi Publikoentzako Gaien Idazpuruen Zerrenda*. Hau ere Madrilgo gobernuaren Kultura Ministerioak argitaratua.

3. *Sailkapen Hamartar Unibertsala*. Dokumentazioko Nazioarteko Federazioak argitaratua.

Hiruretan erabiltzailearengan eragin handiena duena bigarrena da. Hori dela eta, Euskal Herriko bi erakunde zerrendok euskaratzea erabaki zuten: Eusko Jaurlaritzak Labayru Ikastegiari eman zion zerrenda itzultzeko enkargua. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, UZEIri agindu zion itzulpenaren ardura. Adituen ustez, ordea, itzulpen biak nahikoa desberdinak dira. Hori dela eta, udal liburutegietan batasuna bilatze aldera, HAAE/IVAPEko aditu talde bat itzulpen biak aztertzen ari da eta laster emango du jakitera bietarik zein ikusten duen egokien EAEko udal liburutegietan erabiltzeko.

Erabakia hartu eta gero, udal liburutegietako liburuzainek izango dute materialen katalogazioa euskaraz ere egiteko aukera.

Ainhoa Agirreazaldegia, 17, Bergarako BBB ikasleak Ikastolen eta Eskolen Arteko Bertso Txapelketa irabazi du. Xenpelar Saria eta 14 urtetik azpiko txapela ere irabaziak ditu.

Edorta Arana, 35, irakasle arrasatearrak Gizarte eta Nazio Errepresentazioa Telebista Albistegietan izeneko doktorego tesia aurkeztu zuen EHUKo Informazio Zientzien fakultatean, Leioan, eta cum laude aipamena jaso zuen. Edorta Arana EHUKo Informazio Zientzietako irakaslea da.

Elias Unzueta, 27, kimikari abadiñarrak Emultsionatzaile-sistemen Eragina Emultsio-polymerizazio Erdijarrian tesia aurkeztu zuen EHUKo Donostiako Kimika fakultatean. Honek ere epaimahaiaren cum laude aipamena merezi izan zuen. Elias Unzueta Kimikako lizentziatua da. Gaur egun Repsol enpresako I+D sailean ari da lanean, Madrilen.

Argitalpenak

Harrian Herria bideoa

Euskal Kultur Erakundeak eta 16 Arts Production etxeak egin duten bideoaren xedea Ipar Euskal Herria ezagutzera ematea da. 30'tan zehar, mendialdeko, lautadako eta kostaldeko jendearen bizimodua, kultura eta lan moldeak erakusten zaizkigu. Lau hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez. Liburudendetan salgai.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka


Herri administrazio eta euskara

G administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintza?

E Duela gutxi, uztailearen aurrerakoa hain zuzen, bost urteko plangintzaldia bete da Plangintzaren lehen fasea bete denez, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari dagokio Eusko Jaurlaritzaren Gobernu batzordeari aurkeztea bost urteko aldi honetan izandako betetze mailaren azterketa, eta hurrengo urteetarako proposatzen diren neurrien zerrenda.

Laburbilduz, bi ondorio nagusi azpimarratu nahi ditut: batetik, plangintzaren hedapen zabala, administrazio gehienek onartu baitute; eta, bestetik, lortuko den betetze mailarena, %90 ingurura iritsiko baita aurrikusitako helburuak kontuan hartzen badira.

Bestalde, HPSk apustu gogorra egin behar du, hurrengo urteotan, erabilera indartzeko proiektuak babesteko.



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia.

Word 6.0 euskaraz aurkeztu da

Uztailearen 10ean Word 6.0 programaren euskal bertsioa aurkeztu zen. Teknologia berrien iraultzaren atetan gauden honetan, euskararen berri ontzat jo dezakegu Word 6.0 euskaraz izatea erabilgai. Berri ona diogu, batetik, erabiltzaile gehien biltzen dituen programa delako - munduko 31 hizkuntzatarago dago itzulita-, eta, bestetik, Espainiako estatuko hiru hizkuntzatan egongo delako: gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz.

Azpimarratzekoa da ekimen hau erakunde pribatuen eta publikoen lankidetzari esker gauzatu dela: UZEI, Elhuyar, Microsoft eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte eta Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

UZEI eta Elhuyar erakundeek duela urtebete heldu zioten

programa euskaratzeari; informatikako hizkuntza lehor eta laburretik abiatuta, ahalegin berezia egin behar izan dute hizkuntza zehatza eta ulerterraza eskaintzeko. Laneko sorburu hizkuntza ingelesa izan da. Bestalde, programaren barruan dago Xuxen zuzentzaile ortografikoa.

Erabiltzaileak ikusiko du menuetako zenbait atal euskaratu gabe ageri direla: itzulita dauden arren, ez dira euskaraz ageri, Windows sistematik datozenak direlako.

Dena den, laster konponduko da hori. Hain zuzen ere, urte bukaeran kaleratzekoa den Windows 95 euskaratzen ari dira eta. Microsoft etxearen ohiko banaketa bideak erabiliko dira euskarazko Word 6.0.zabaltzeko.

✓ Kontutan hartzeko

• Agirre Presidenta" pastorala.

Zuberoako Arrokiaga herrian taularatuko da Jean Louis Davanten azken pastorala, abuztuaren 6an, arratsaldeko 15:30etan.

• Gutxiengo Hizkuntzak

Laguntzeko Europako Programa. Irailaren 1ean amaituko da proiektuak aurkezteko azken epea. Berri gehiagorako, tel.: (945) 18 80 91.

• Igartza Saria.

Beasaingo Udalak eta CAF enpresak Igartza Abentura eta Misteriozko II. Nobela Lehiaketa eratu dute. Lanak aurkezteko azken eguna: irailak 15.

• Iruñeko Udalaren X.

Literatur Lehiaketa. Egile berrientzako lehiaketa honek, hiru sail ditu: olerkia, narrazio laburra eta bertsopaperak. Urriaren 20an amaituko da epea.

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA